

artikulu nabarmenak
artículos destacados



abuztua/agosto



VANDERHOVEN, Ellen, Tammy SCHELLENS eta Martín VALCKE. [Sare sozialen arriskuen berri nerabeei ematea: Bigarren Hezkuntzan esku hartzeko proposamen bat.](#) *Comunicar*, 43. zk., 22. libk. 123-132. orr.

Hainbat dira gizarte-sareetan eta segurtasunari begira nerabeek kontuan hartu beharreko arriskuak: edukari dagozkionak (fidagarritasuna eta jarrerak), bat egiteari dagozkionak (ziberjazarpena, sexting-a) eta ekonomikoak (pribatutasuna). Horiei aurre egiteko eskolak prestakuntza eskaini ahal du. Ikerketa baten arabera prestakuntzak nerabeen jokabideetan eragiten du, hain zuzen aipatutako arrisku mota horietako lehenengo bietan. Jarreraren aldaketan, ordea, ez ei du arrakastarik. Epe luzera begira esku-hartzeak horretan eragin nahi du.



GARAIGARDOBIL, Maite eta Vanes Martínez-VALDERREY. [Cyberprogram 2.0 programaren eragina biktimizazioa gutxitzeko eta nerabezeroan gizarte-gaitasunak hobetzeko.](#) *Revista de psicodidáctica*, 2014, 19. libk. 2. zk., 289-305 orr.

Cyberprogram2.0 izeneko programaren ebaluazioa egin dute. Aurrez aurreko jazarpena zein birtuala aurreikusteko eta, behar denetan, esku hartzeko 19 jarduerak osatzen dute programa hori. Aldez aurretiko eta osteko ebaluazioa egin dute bi galdeketa bitartez: Eskola esparruko Jazarpen eta Indarkeriari buruzko Galdeketa eta Jarrerei eta gizarte-estrategia kognitiboari buruzko Galdeketa. Emaitzek honako hau agertu dute: batetik, aurrez aurreko bullying-ak eragiten duen biktimizazioa gutxi egiten da emakume zein gizonen artean; eta, bestetik, aldeko gizarte-jokabideak hobetzen dira, emakumetan gizonetan baino areago. Halako programak lanabes eraginkorrak dira eskola esparruko indarkeriaren prebentzioan



VITORIA-GASTEIZ. UDALA. SAILARTEKO LAN-TALDEA. [Desabantailaren bidegurutzean dauden gazteak: gizarte-desabantailan daudenen egoeren azterketa eta arrisku-jokabideak Vitoria-Gasteizen.](#) *Zerbitzuan*, 55. zk., 99-109. orr.

Vitoria-Gasteizko gazteetako hainbat gizarte-desabantailan bizi dira. Artikulu honek aztergai du desabantaila zein egoeratan gertatzen den eta zein faktorek eragiten duten, gazteak arrisku-jokabideetan jardutera bultzatzen dituztenak hain zuzen. 2013-2015 aldirako III. Gazte Planaren diseinurako lanabesa izan da ikerketa hau. Aztertutako alorrak hauek izan dira: hezkuntza, osasuna, justizia, lan-harremanak eta familia-harremanak. Horietan guztietan zenbait neurri hartzeko proposamena egiten dute egileek.

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA